

## IRABAZI ITURRIAK

Hasiera batean, jasoko ditugun irabazi iturriak ditugun gastuak baino baxuagoak izango dira, baina denborarekin etekinak aterako ditugu eta kostu hauek bolumenaren arabera finkoak izango dira, hau da, txartel bakoitza diru kantitate bat balioko du, adibidez: bat erosten baduzu, 39,99€ ordaindu beharko dituzu; bi erosten badituzu 79,98€ izango lirateke, eta horrela txarten kopuruaren arabera aldatuz joango da.

Diru sarrerak beharko ditugu, hasieran irabazi iturri handirik ez dugulako izango. Taldekide bakoitzak 1.000€ jarriko ditu eta horrela 5.000€ izango ditugu gure produktua garatzen hasteko.



Produktuaren salmentaz gain, gure webgunean eta sare sozialetan publizitatea jarriz izango ditugu irabazi-iturriak, hilabetero 75€ lortuz. Asko ez izan arren, lehenengo urteetarako oso lagungarria izango da.

Halaber, bankuak emango digun mailegua ezinbestekoa izango da gure proiektua kondizio onetan hasteko.

Espero dugu lehenengo urteetan 3600 txartel inguru saltzea, bakoitza 39,99 eurotan. Aurreikusitakoa salduta, 140.000 euroko irabaziak edukiko ditugu urtean; hau da, hilean 11.500 euro gutxi gora behera. Denbora pasa ahala, urtean txartel gehiago saltzea izango litzateke hoberena, urtean 160.000€ - 170.000€-tara igotzea espero dugu.

Ondorioz, gure enpresaren diru sarrera gehienak aktiboen salmentan lortuko ditugu.

